

## Indiako jatorrizko herrien kultura ekarriko digu 2017ko Ankur Birak

### 3 astetan Euskadi, Nafarroa, Errioxa eta Kantabria zeharkatuko ditu

2017ko martxoaren 6an. Indiako Gujerat Estatutik datorren artista talde batek Euskal Autonomi Erkidegoa, Nafarroa, Errioxa eta Kantabriako hainbat hiri bisitatuko du adivasi herriaren errealitatea eta hango kultura gureganatzeko asmotan.

ALBOAN, jesuiten GKEak antolaturiko bira hau Tuteran, Iruñean, Loiolako Santutegian, Gasteizen, Donostian, Bilbon, Logroñon eta Santanderren geldituko da, eta bi alderdi ditu:

Batetik, **adibasi herriaren errealitatea hezkuntza-komunitatera gerturatu nahi dugu, musika eta dantza tradizionalen bidez eta hainbat ikastetxetan** Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat **antolatuko diren tailerren bidez**. Topaketak gure gazteei aurreiritzirik gabeko jarrera bat hartzea ekarriko dien espazio bat sortu nahi du. Gazteei adibasi kultura ezagutaraztea da helburua, eta pertsona guztiek eskubide eta aukera berdinak ditugula balioestea, gizon eta emakumeen edo toki desberdinetako jendearen arteko bazterketa mota guztiak gaitzetsiz.

Beste aldetik, Ankurrek **musika- eta dantza-ikuskizun bat** eskainiko du gure geografiako toki desberdinetan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Kantabria eta Errioxa), eta **babesa eta konfiantza eskaintzen dizkiguten pertsonak gonbidatu** nahi ditugu. Horiei esker da posible Gujerat-ALBOAN Misioaren lana, eta ospakizunerako espazio horren bidez eskerrak eman nahi dizkiegu, gure arteko harremanak hazten jarraituko duelako esperantzan.

Sarrera **doakoa** da, aretoak bete arte, baina **Indiako Gujerat-eko ALBOANen egitasmoak sustatzeko, diru-laguntzak** egin ahal izango dira ikuskizunetan edota La Caixa-ko zenbaki honetan: ES76 2100 0732 2802 0048 5457.

**Diru-laguntza online** ere egin ahal izango da: [www.alboan.org](http://www.alboan.org).

**Ankur**, gujarateraz *ernatzen dena* esan nahi duena, Gujarvarniren eskutik dator, Gujerat estatuko Jesusen Lagundiaren Komunikazio eta Kultur Zentroaren eskutik, alegia. Zentro horren oinarritzko helburua adivasi gizarte babesgabearen kultura defendatzea da. Adivasi, Indiako jatorrizko herriak dira, historikoki kasta nagusiek esklabizatuta, eta, egun, bazterkeria eta pobreziaren biktima.